

## ARDANTZA LENDAKARIARI

Jaun ona:

Ba-dakit kristiñau katoliku zintzoa zarala eta ni 82 urteko abade zar eta entzute-bakoa naz, ez besterik. Apal baiña Igarle bateri lez Jaungoikoak abadeari emoten dautson eskubideaz, zerbait esatera natortzu.

Joan diran Gabonetan, eguerdian, amabietan teleikuskiñaren egitarauan Aita Santuak jardun eban berbetan, Urbi et Orbi izena daroan ekiñaldian. Ekiñaldiak iru zati eukazan: Berbaldia, 45 izkuntzetan Gabon-Zorionak emotea eta bedeinkapena parkamen osoaz batera.

Jakingura ta ardura aundiaz nengoan gure euskerea erabilliko ete eban zorionak emoteko ordu orretan.

Deduz eta itzalez Aita Santuaren abotsa entzuten itxaron neban eta une baten teleikuskiñak erderaz minztatuko zala Aita Santua iragarri eban.

Aita Santua apur bat gelditu egin zan eta baretasunaz baiña urduri egoala agertzen eban, eta gazteleraz eta katalanez emon ebazan zorionak. Gure zori txarrez euskerea ez zan aiatatu be egin.

Zergaitik izan ete zan? Euzkadi ta euskotarrak (betiko euskotar batzuk) eriotza negargarrien egille ziralako? Olako griña daukenai ori kentzeko gai ez garalako? Gabon jaietan, Jesus gorrotoa aldentuten, bakea ekar ten, benetako poza banantzen, borondate oneko gizonai zoriona eskintzen etorri zala edo olako zerbait geurre izkuntzan entzun al izatea, beste batzuk eurenentz entzun al izan daben antzera, pozzgarria izango zan.

Zintzo jokatu gura izan ezkerro, ezagutu bear dogu Joan Paulo Erroma'ko Aita Santuak, gure sinismenaren zuzendari danak, mundu onetan Jesus'en ordezkari dogunak, ikaskizun ederra emon dauskula, izadiak eta Jaungoikoak emon dauskun euskera ederraz arrotu ez gaitezan.

Aita Santuak asarre egon bear dau gugaz, gabon-egun agurgarri orreik adierazten dabena beteten ez daki-gulako edo ezin dogulako, kristiñau lez jokutzen ez dogulako.

Gogoratu dagigun igaz be Aita Santuak ETA-koai arduraz eskatu eutsela Gabon-Aldian beintzat bake-

unea edo guda-arteko epea emon egien. Orduan be gure arteko batek, eta ez edozeiñek, gorengo zan batek, lotsagarriz, "Aita Santuak ez ekiala zer eta nori eskatzen eutson" erantzun eban.

Baiña ba-leiteke beste zio batzuk naiz azpi jokoak izatea Aita Santuak euskeraz berba ez egitea lortzeko. Orregaitik, apal eskatzen dautsut Aita Santuari eskaria egin dagiozula urrengo gabonetan edo aukerea datorrenean beste izkuntza batzukaz batera euskerea be sartu dagian.

Ba-dakigu, Lendakari Jauna, zuk alegiñak egin dozu-zala, egiten eta egingo be bai, ikarabide guztiak Euskal-leritik aldendu daitezcan eta ETA taldeari argi ta garbi esaten deutsozula, sarritan esan be, itsukeri ta zorakeri bildurgarria dala, laterri aundi bategaz eta au gitxi ba'litz laterri bien aurka, Frantziaren eta España'ren aurka, gudaketan ibiltea, gudea galduta legokelako eta bide ori gizarte bide-egokia ez dalako.

Euskaldun eta euskotar baketsuok esker onez eta zorrean gaukazuz zure jokabide zuzen orregaitik.

Ba-dakigu, iñok baiño obeto, Euzkadi'ren askatasuna nai dozuna eta orretan sendo zagozema, baiña ez ori indarkeriaren bidez lortzeko, auteskundearen eta legearen bidez baiño, Gernika'ko Araudiak zabaltzen dauzan bideetatik asita.

Aita Santua ez doa zure aurka, ez dago zugaz asarre, berak ba-daki, Sabin'ek esan eban lez, Euzkadi'ren biotzean dagoala Eleizea.

Baiña nik neuk, orain neurez iñor ez izan arren, neure nortasun ezerezagaz baiña abadeari dagokion igar-le arnasaz eta zarren oarkuntzagaz, auxe diñotzut: ETA taldea biziko dala, Euzkadi bere eskualdeak kontuan artuta Suiza baten antzera nortasundun erria izatea lortzen ez ba'dogu. Ori lortu ezkerro, eskualdeak bear-tuta egongo dira euren kontura biziteko eta orduan ez leuskioe ETA'ri arnasarik emongo. Ziur egon. Ez dago beste biderik ETA ezereztu daiten, erri askatua eta eskualde askatuak osotua.

LETONA'k

